

**EUSKADIKO UDAL-ARLO PUBLIKOKO
AURREKONTU-ANALISIA**

2019

EUSKADIKO UDAL-ARLO PUBLIKOA 2019

Aurkibidea

1.	HITZAURREA	7
2.	DIRU-SARRERAK.....	11
2.1	ANALISI OROKORRA ETA LURRALDEKAKOA.....	11
2.2	POPULAZIO-MAILAKA	18
3.	GASTUAK.....	23
3.1	ANALISI OROKORRA ETA LURRALDEKAKOA.....	23
3.2	POPULAZIO-MAILAKA	27
4.	ZORPETZEA.....	31
5.	EKONOMIA ETA FINANTZA EGOERA.....	33
5.1	ANALISI OROKORRA ETA LURRALDEKAKOA.....	33
5.2	POPULAZIO-MAILAKA	34
6.	ZERGA ITUNDUETAN UDAL PARTE-HARTZEA.....	35
7.	ERANSKINA	39

Koadroen aurkibidea

1.1 Koadroa: Entitateen lurralde banaketa eta sailkapena	8
1.2 Koadroa: Populazioaren banaketa udalerrien tamainaren arabera	8
1.3 Koadroa: Udalen sozietate publikoak. Jardueraren araberako sailkapena eta lurraldekako banaketa.....	9
1.4 Koadroa: Udalez gaindiko enpresak. Jardueraren araberako sailkapena eta lurraldekako banaketa.....	10
2.1 Koadroa: Udal-arlo publikoko diru-sarrera bateratuen bilakaera. EAE guztira.....	11
2.2 Koadroa: Diru-sarreraren sailkapen ekonomikoa 2019an lurraldeka, eta bilakaera aurreko urtearekiko	13
2.3 Koadroa: Diru-sarreraren iturri nagusiak kontzeptuen arabera. 2019.....	15
2.4 Koadroa: Biztanleko diru-sarrerak (Euro)	17
2.5 Koadroa: Diru-sarreraren sailkapen ekonomikoa: Bilakaera	19
2.6 Koadroa: Biztanleko eta populazio-mailen araberako presio fiskala (€/bizt.).....	20
2.7 Koadroa: Zerga-bilketaren eraginkortasuna (%)	21
2.8 Koadroa: Presio fiskal handiena duten udalerririk (€/bizt.).....	22
3.1 Koadroa: Udal-arlo publikoaren gastu bateratuen bilakaera. EAE guztira.....	23
3.2 Koadroa: Gastuen sailkapen ekonomikoa lurraldeka 2019an eta aurreko urtearekiko bilakaera.....	25
3.3 Koadroa: Udal-arlo publikoaren biztanleria okupatua.....	26
3.4 Koadroa: Biztanleko gastuak (euro).....	26
3.5 Koadroa: Gastuen sailkapen ekonomikoa: Bilakaera	28
4.1 Koadroa: Zorpetze-indizea orokorra eta lurraldeka (mila €).....	31
4.2 Koadroa: Zorpetze-indizea populazio-mailaka (mila €).....	31
4.3 Koadroa: Zor bizi formalizatua orokorra eta lurraldeka	32
4.4 Koadroa: Biztanleko zor bizi formalizatua, lurraldeka eta populazio-mailaka (€)	32
5.1 Koadroa: Ekonomia eta finantza egoera lurraldeka (mila €)	33
5.2 Koadroa: Ekonomia eta finantza egoera populazio-mailaka (mila €).....	34
6.1 Koadroa: Zerga itunduetan udal parte-hartzea	35
6.2 Koadroa: Zerga itunduetan udal parte-hartzearen bilakaera (mila €)	36
6.3 Koadroa: Zerga itunduetako partaidetza biztanleko eta populazio-mailaka (€)	36

Grafikoen aurkibidea

2.1 Grafikoa: Udal-arlo publikoaren diru-sarrera bateratuen sailkapen ekonomikoa lurraldeka. (%).....	12
2.2 Grafikoa: Diru-sarreraren lurralde banaketa. 2019 (%)	12
2.3 Grafikoa: Udal-zergak guztizko diru-sarreretan	14
2.4 Grafikoa: Diru-sarrerak udal-zerga motaren arabera. (%).....	14
2.5 Grafikoa: Transferentzia arruntak guztizko diru-sarreretan	16
2.6 Grafikoa: Kapital transferentziak guztizko diru-sarreretan	16
2.7 Grafikoa: Diru-sarreraren sailkapen ekonomikoa populazio-mailaka. 2019	18
2.8 Grafikoa: Biztanleko diru-sarrerak (€).....	20
3.1 Grafikoa: Gastuen sailkapen ekonomikoa, orokorra eta lurraldeka: Egitura	24

3.2 Grafikoa: Gastuen lurralde banaketa. 2019 (%)	24
3.3 Grafikoa: Gastuen sailkapen ekonomikoa populazio-mailaka: Egitura	27
3.4 Grafikoa: Gastuak biztanleko (€)	29

1. HITZAURREA

Azterlan honetan udal-arlo publikoan sartu diren entitateak honako hauek dira:

- Udalerriak
- Udalerrien mendeko erakundeak
 - Erakunde autonomoak
 - Udal-sozietate publikoak
 - Toki-erakunde txikiak
- Udalergi-elkarteak
 - Kuadrillak
 - Mankomunitateak
 - Partzuergoak
 - Udalergi batek baino gehiagok osatutako sozietate publikoak edo udalez gaindiko sozietateak

Sozietate publikoak kontuan hartuko dira, udalen kapital sozialeko partaidetza % 50etik gorakoa bada.

2019. ekitaldiari dagozkion udal-entitateen aurrekontu-likidazioetako datuak aurkeztu dira, aitortutako eskubideak eta obligazioak. Datu horiek Eustatek bildu ditu “Sektore publikoaren aurrekontuen estatistika” eragiketan. Biztanleriari eta Barne Produktu Gordinari buruzko informazioa aipatutako erakunde berak argitaratu du.

2018. eta 2019. urteen artean, aztertu den udal-entitateen eta udalez gaindiko entitateen kopuruak ez du izan aldaketa esanguratsurik, nahiz eta 2013an hasitako beheranzko joerak bere horretan jarraitzen duen.

Urtetik urterako aldaketen jatorriak bi dira: alde batetik, entitateak sortu edo desagertu izana eta, bestetik, lortutako jasotze-tasa, handiagoa edo txikiagoa izatea. Zehazki, 2019ko guztizko kopuruaren aldaketaren arrazoia honetan datza: 5 erakunde autonomo eta 9 udal-enpresa azterketatik kanpo geratu dira eta 2 udal-sozietate publikoak sartu dira. Azterketaren irteerak 11 erakunde desagitearen eta 3 ez biltzearen ondorio dira.

1.1 Koadroa: Entitateen lurralde banaketa eta sailkapena

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
UDALERRIAK	51	112	88	251
TOKIKO ENTITATE TXIKIAK	334	4	2	340
ERAKUNDE AUTONOMOAK	7	46	28	81
UDAL-ENPRESAK	10	41	42	93
UDAL-ELKARTEAK	35	17	25	77
UDALERRI-ELKARTEEN ENPRESAK	0	4	15	19
GUZTIRA	437	224	200	861

Analisia lurralde historikoka eta mailaka egin da. Horretarako, udalak 5 multzotan banatu dira.

1.2 Koadroa: Populazioaren banaketa udalerrien tamainaren arabera

	1. Pop.-maila ≤1000		2. Pop.-maila 1.001-5.000		3. Pop.-maila 5.001-20.000		4. Pop.-maila >20.000 (Hirib. ezik)		5. Pop.-maila Hiriburuak		GUZTIRA
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	
ARABA											
UDALERRIAK	28	54,9	19	37,3	3	5,9	0		1	2,0	51
POPULAZIOA	12.476	3,8	35.612	10,8	34.034	10,3	0		248.087	75,1	330.209
BIZKAIA											
UDALERRIAK	38	33,9	40	35,7	23	20,5	10	8,9	1	0,9	112
POPULAZIOA	19.079	1,7	93.651	8,2	238.460	20,8	451.376	39,3	346.478	30,2	1.149.044
GIPUZKOA											
UDALERRIAK	32	36,4	22	25,0	27	30,7	6	6,8	1	1,1	88
POPULAZIOA	12.716	1,8	49.409	6,9	282.531	39,2	193.411	26,8	182.391	25,3	720.458
GUZTIRA											
UDALERRIAK	98	39,0	81	32,3	53	21,1	16	6,4	3	1,2	251
POPULAZIOA	44.271	2,0	178.672	8,1	555.025	25,2	644.787	29,3	776.956	35,3	2.199.711

ITURRIA: EUSTAT. Biztanleen Udal Erroldaren Estatistika

Lurralde-berezitasunak daude populazioaren banaketari dagokionez: Araban, populazioaren % 75 hiriburuan dago bilduta; Bizkaian, aldiz, populazioaren % 30 hiriburuan bizi da, baina % 69ra iristen da, 20.000 biztanle baino gehiagoko udalerrriak kontuan hartzen baditugu; azkenik, Gipuzkoan, hiriburuan % 25 biltzen da eta, 20.000 biztanle baino gehiagokoak gehituta, % 52ra heltzen da.

Azkenik, aipatu behar da Markina-Xemeingo populazio-maila Bizkaian aldatu egin dela, 2tik 3ra. Hori dela eta, urte arteko alderaketa egiteko, 2018ko datuak aldatuta hori gehituz berregin dira.

Era berean, aurreko ekitaldiko datuak azterketaren urtean eskuragarri dagoen informazioaren arabera berregiten dira.

Lurralde historikoka egiten den analisiak barne hartzen ditu udal-entitateen eta udalez gaindiko entitateen datuak. Hala ere, udalaz gaindiko entitateen datuak ezin direnez zehatz-mehatz egotzi udalerrien artean, biztanleria-mailaka emandako datuak udal-eremuko erakundeei buruzkoak baino ez dira¹.

Datuen azterketa egokia egiteko, zerbitzu batzuen kudeaketan dauden berezitasunak kontuan izan behar ditugu (zabor bilketa, ur hornidura, garraio publikoa...). Horrela, Vitoria-Gasteizen, Amvisa da ur hornidura zerbitzuaren arduraduna. Udal entitatea da eta, horrela, bere datuak udalerrien datuekin multzokatu dira eta populazio-mailaka egiten den azterketaren barnean dago. Bilbon eta Donostian zerbitzu hau ematen dutenak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa eta Añarbeko Urak dira, hurrenez hurren. Horiek udalez gaindiko enpresak dira eta lurraldeka egiten den azterketaren barnean daude.

1.3 Koadroa: Udalen sozietate publikoak. Jardueraren araberako sailkapena eta lurraldekako banaketa

JARDUERA POPULAZIO- MAILA	ARABA						BIZKAIA						GIPUZKOA						EAE						
	1	2	3	4	5	G	1	2	3	4	5	G	1	2	3	4	5	G	1	2	3	4	5	G	
Ura, zaborra eta garbiketa															1		1	2				1		1	2
Turismoa					1	1			1			1			1			1			1	1	1		3
Hiri-garraioa					1	1					1	1					1	1						3	3
Kirol-instalazioak										2	1	3			1		1	2				1	2	2	5
Enplegu-sustapena									3	2		5										3	2		5
Kultura										1	2	3			1		3	4				1	1	5	7
Energia		1				1							1		5			6	1	1	5				7
Garapen-agentziak			1			1		1	2		1	4			1	1	1	3		1	4	1	1	2	8
Beste batzuk		1				1		2	1	1	3	7				2	2	4		3	1	3	5		12
Lurra, hirig., etxebi.	1	1	1		2	5	8	4	4	1		17	4	12	2	1		19	1	13	17	6	4		41
GUZTIRA	1	3	2	4	10	10	11	11	10	9	41	41	1	4	21	6	10	42	2	18	34	16	23	93	93

Datuetan jasotzen diren udal-sozietateen % 45 Gipuzkoan daude, % 44 Bizkaian eta % 11 Araban. Halaber, nabarmendu behar da lurra, hirigintza eta etxebizitza jarduerak betetzen dutela aztertutako udal enpresen % 44ren zeregina.

¹ Erakunde guztien datuak dituzten koadroak urdin kolorekoak dira, eta udal erakundeei dagozkienak, berriz, berde kolorekoak dira.

1.4 Koadroa: Udalez gaindiko enpresak. Jardueraren arabera sailkapena eta lurraldekako banaketa

JARDUERA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE
HILTEGIAK	0	0	1	1
TURISMOA	0	0	1	1
LURRA, HIRIG., ETXEBI.	0	1	2	3
URA, ZABORRA, GARBIKETA	0	1	6	7
GARAPEN-AGENTZIAK	0	2	5	7
GUZTIRA	0	4	15	19

2019an jasotako udalez gaindiko enpresen % 79 Gipuzkoan daude eta gainerako % 21a Bizkaian.

2. DIRU-SARRERAK

2.1 ANALISI OROKORRA ETA LURRALDEKAKOA

Diru-sarreraren bilakaerari eta ezaugarriari buruz hauxe nabarmendu behar dugu:

- 2019. ekitaldian udal-arloko diru-sarrera bateratuen zenbatekoa 3.945 milioi eurokoa izan da, hau da, 2018an izandakoa baino % 1,8 gehiago (71 milioi euro gehiago, gutxi gorabehera). Udalek (+86 milioi) eta udalaz gaindiko entitateek (+8 milioi) handitu dituzte diru-sarrerak, baina gainerako taldeetan murriztu egin dira.
- Diru-sarreraren zifra orokor bateratuaren urte arteko bilakaerak hiru lurralde historikoetan egin du gora, eta hazkunde-tasa handiagoa izan da Bizkaian (% 3,2) Gipuzkoan (% 0,6) eta Araban (% 0,4) baino.
- Toki-erakunde txikien diru-sarreraren beherakada kapital-transferentzien murrizketaren ondorio da. Erakunde autonomo administratiboen kasuan, beherakada Gipuzkoan izan da batez ere, Aldundia pixkanaka egoitzen kudeaketa bere gain hartzen ari delako.


2.1 Koadroa: Udal-arlo publikoko diru-sarrera bateratuen bilakaera. EAE guztira.

	2018		2019		Δ%
	Mila €	%	Mila €	%	
Udalak eta beren mendeko entitateak					
Tokiko entitate txikiak	24.556	0,6	20.530	0,5	-16,4
Adm. erakunde autonomoak	106.650	2,8	92.760	2,4	-13,0
Sozietate publikoak	190.375	4,9	185.955	4,7	-2,3
Udalerriak	3.212.359	82,9	3.298.042	83,6	2,7
GUZTIZKO PARTZIALA	3.533.940	91,2	3.597.288	91,2	1,8
Udalez gaindiko entitateak					
Mankom., partzuergoak, kuadrillak...	259.812	6,7	263.709	6,7	1,5
Udalez gaindiko enpresak	80.160	2,1	83.910	2,1	4,7
GUZTIZKO PARTZIALA	339.972	8,8	347.619	8,8	2,2
DIRU-SARRERAK BATERATUA GUZTIRA	3.873.912		3.944.907		1,8


- Udal-sektore publikoko diru-sarreraren % 51 inguru transferentziak dira; horietatik % 95 transferentzia arruntak dira, eta gainerako % 5a kapitalekoak. Zerga bidezko diru sarrerak % 44 baino gehiago dira, eta

zorpetzea guztizkoaren % 1,6 da. Gipuzkoan zerga-sarrerak dira garrantzitsuenak, eta Araban eta Bizkaian, berriz, transferentzien ondoriozko diru-sarrerak.

2.1 Grafikoa: Udal-arlo publikoaren diru-sarrera bateratuen sailkapen ekonomikoa lurraldeka. (%)



2.2 Grafikoa: Diru-sarreren lurralde banaketa. 2019 (%)




2.2 Koadroa: Diru-sarrerren sailkapen ekonomikoa 2019an lurraldeka, eta bilakaera aurreko urtearekiko

	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		EAE	
	Mila €	Δ % 19/18	Mila €	Δ % 19/18	Mila €	Δ % 19/18	Mila €	Δ % 19/18
Zuzeneko zergak	121.398	-0,2	325.291	2,6	245.505	1,0	692.194	1,6
Zeharkako zergak	11.799	7,8	35.385	9,1	24.267	19,5	71.451	12,2
Tasak eta best. zergak	123.475	-1,7	460.192	4,0	398.871	-0,3	982.537	1,5
Zerga -bidezko diru-sarrerak	256.671	-0,6	820.868	3,7	668.643	0,8	1.746.182	1,9
Transferentzia arruntak	266.970	5,9	1.020.289	7,1	608.472	3,1	1.895.731	5,6
Kapital transferentziak	28.560	-28,9	44.369	8,0	25.401	-38,7	98.330	-19,8
Transferentziak	295.530	1,1	1.064.658	7,1	633.873	0,4	1.994.061	4,0
Ondare sarrerak	10.113	6,3	24.313	-5,3	17.018	18,1	51.443	3,7
Inb. errealen besterentzea	4.508	-3,3	17.664	-62,5	62.190	-23,1	84.362	-36,4
Finantza-aktiboak	63	-74,7	2.251	-52,3	1.807	-53,6	4.121	-53,5
Bestelako diru-sarrerak	14.685	1,8	44.227	-42,9	81.014	-18,3	139.927	-26,8
GUZT. ZORPETZERIK GABE	566.887	0,4	1.929.753	3,6	1.383.530	-0,8	3.880.170	1,5
Zorpetzea	13.777	3,7	7.227	-48,1	43.734	77,5	64.738	24,9
DIRU-SARRERAK, GUZTIRA	580.664	0,4	1.936.980	3,2	1.427.264	0,6	3.944.907	1,8


- Zerga-bidezko diru-sarrerak % 1,9ko batez besteko igoera izan dute. Talde horren barruan, igoera esanguratsuen zeharkako zergei dagokie, baina eragin txikia dute guztizkoan. Lurraldeka, Araban jaitsi egin dira (-% 0,6), eta hazi Gipuzkoan eta Bizkaian (% 0,8 eta % 3,7).
- Transferentzia arruntek igoera nabarmena izan dute, % 5,6, Bizkaiko hazkundeak bultzatuta (% 7,1). Kapital-transferentziak % 19,8 jaitsi dira, lurralde historikoen arteko aldeekin: Bizkaian % 8,0 gehitu dira, eta Araban eta Gipuzkoan jaitsi dira, % 28,9 eta % 38,7, hurrenez hurren.
- Zorpetze bidezko diru-sarrerak, oro har, % 24,9 hazi dira. Aipatu behar da diru-sarrera horiek baliabideen % 1,6 baino ez direla.
- Azkenik, bestelako diru-sarreraren epigrafean urtetik urterako aldaketa handiak ikusten dira, hura osatzen duten kapituluaren ezegonkortasuna dela-eta. Azpimarratzekoa da inbertsio errealak besterentzeagatik eta hirigintzako jarduketetatik eratorritako bestelako sarreretan izandako jaitziera (-% 36,4).

- Udal-zergak kontsolidatutako guztizkoaren % 19,4 dira, aurreko urteko urtekoaren antzeko ehunekoa. Zuzeneko zergak zerga guztien % 91 inguru dira, eta OHZ da udalei baliabide gehien ematen dizkien zerga (udal-zerga guztien % 50,8).

2.3 Grafikoa: Udal-zergak guztizko diru-sarreretan



2.4 Grafikoa: Diru-sarrerak udal-zerga motaren arabera. (%)




- Diru-sarrereren kontzentrazioa zertxobait handitu da hiru kontzeptu garrantzitsuetan: foru aldundietako transferentzia arruntak (% 44,7), tasak (% 16,1) eta OHZ (% 9,8); kopuru osoaren % 71 inguru.

2.3 Koadroa: Diru-sarrereren iturri nagusiak kontzeptuen arabera. 2019


		Mila €	%
420	Foru Aldundiarenak eta bestelako foru enteenak	1.762.980	% 44,7
31	Toki eskumeneko zerbitzuak eskaini edo jarduerak egiteagatiko tasak	634.444	% 16,1
112	Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga	387.509	% 9,8
113	Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga	136.990	% 3,5
41	Euskal Autonomia Erkidegokoak	116.999	% 3,0
130	Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga	105.534	% 2,7
30	Salmentak	90.993	% 2,3
32	Tokiko herri jabariaren erabilera pribatiboagatiko edo aprobetxamendu bereziagatiko tasak	88.872	% 2,3
282	Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga	71.427	% 1,8
114	Hiri-lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga	62.161	% 1,6
93	Jasotako epe luzerako maileguak	58.233	% 1,5
720	Foru Aldundiarenak eta bestelako foru enteenak	55.684	% 1,4
399	Beste hainbat sarrera	49.806	% 1,3
34	Prezio publikoak	41.127	% 1,0
71	Euskal Autonomia Erkidegokoak	36.559	% 0,9
391	Isunak	36.462	% 0,9
65	Hirigintzako jardueretatik ondorioztatutako sarrerak	30.825	% 0,8
	GAINERAKOAK	178.305	% 4,5
	DIRU-SARRERAK GUZTIRA	3.944.907	% 100,0

- Transferentzia arruntak diru-sarrera guztien % 48 baino gehixeago dira, eta gehienak foru aldundietatik datoz (% 93). Kapital-transferentziak 0,7 puntu jaitsi dira eta 2019ko diru-sarrera guztien % 2,5 baino ez dira: % 56,6 foru aldundietatik datoz, % 37,2 Eusko Jaurlaritzatik eta % 2,4 Estatutik (2,4 M€).

2.5 Grafikoa: Transferentzia arruntak guztizko diru-sarreretan



2.6 Grafikoa: Kapital transferentziak guztizko diru-sarreretan



Azkenik, udal-arlo publikoaren biztanleko diru-sarrereren analisiak hau erakusten du:

- EAEko biztanleko diru-sarrerak 23 euro hazi dira batez beste, 2018. urtearekin alderatuta: 1.793 eurokoak dira. Horietatik, 29 euro bakarrik dagozkio zorpetzeari.
- Gipuzkoako biztanleko diru-sarrerak (1.981 €/bizt.) Arabakoak (1.758 €/bizt.) edo Bizkaikoak (1.686 €/bizt.) baino askoz handiagoak dira, batez ere zerga bidezko diru-sarrerengatik (928 euro biztanleko Gipuzkoan, eta 777 eta 714 euro biztanleko Araban eta Bizkaian, hurrenez hurren).
- Bestelako diru-sarreretan eta zorpetzeko baliabideetan ere Gipuzkoa buruan dago, eta Bizkaia lehenengo tokian dago transferentzietatik datozen diru-sarrerak kontuan hartuz gero.
- 2018. urtearekin alderatuz, biztanleko diru-sarrerek gehitu egin dira Bizkaian (% 2,6) eta Gipuzkoan (% 0,1), eta jaitsi Araban (-% 0,2).

2.4 Koadroa: Biztanleko diru-sarrerak (Euro)


	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE
Zerga bidezko diru-sarrerak	777	714	928	794
Transferentziak	895	927	880	907
Bestelako diru-sarrerak	44	38	112	64
Zorpetzerik gabe diru-sarrerak	1.717	1.679	1.920	1.764
Zorpetzea	42	6	61	29
DIRU-SARRERAK, GUZTIRA	1.758	1.686	1.872	1.793

2.2 POPULAZIO-MAILAKA

Populazio-mailak kontuan hartuta, hau ikusten da:

- Oro har, populazioa handitzen den heinean, zerga-bidezko diru-sarreraren protagonismoa indartzen da. Horrela, pisu erlatibo minimoa, % 29,4, udalerrri txikienetan gertatu da, eta maximoa, % 42,8, hiriburuetan.
- Udalerrri txikienetan transferentziak garrantzitsuagoak dira, batez ere, kapital transferentzien tamainagatik.
- Zorpetzearen pisu erlatiboa 2. Populazio-mailako % 0,3ko minimotik hiriburuetakoko % 2,4ko maximora aldatzen da.

2.7 Grafikoa: Diru-sarreraren sailkapen ekonomikoa populazio-mailaka. 2019



- Zorpetzerik gabeko diru-sarrerak 3. populazio-mailan baino ez dira murrizten (5.001-20.000 biztanle). Guztizko diru-sarrerek gora egin dute populazio-maila guztietan, baina igoera ez da nabarmentzekoa 2. populazio-mailan (1.001-5000 biztanle).


2.5 Koadroa: Diru-sarreren sailkapen ekonomikoa: Bilakaera

	<=1.000		1.001-5.000		5.001-20.000		>20.000 Hirib. izan ezik		Hiriburuak	
	mila€	Δ %	mila€	Δ %	mila€	Δ %	mila€	Δ %	mila€	Δ %
Zerga-bidezko diru-sarrerak	26.081	3,3	106.850	2,5	324.467	-0,6	360.780	2,2	645.624	2,2
Transferentziak	56.034	4,9	156.438	1,8	449.710	2,4	530.878	6,3	748.788	4,6
Bestelako diru-sarrerak	6.226	11,6	10.672	-19,9	19.298	-49,0	19.782	-42,2	77.877	-18,5
Zorpetzerik gabeko diru-sarrerak	88.341	4,9	273.959	1,0	793.475	-1,2	911.440	2,8	1.472.289	2,0
Zorpetzea	399	57,6	883	-75,3	19.831	183,8	5.886	-43,0	35.455	23,2
GUZTIRA	88.741	5,0	274.842	0,0	813.306	0,4	917.326	2,3	1.507.744	2,5

Biztanleko diru-sarrerei dagokionez, populazio-mailaka, hau ikusten da:

- Biztanleko diru-sarrerak, hiriburuek osatzen duten populazio-mailan izan ezik, jaitsi egiten dira biztanleria hazten den heinean. Kontuan izan behar da udalerrri txikienek dituztela zifra handienak, finantzaketarako foru-funtsen transferentzia arruntetan gutxieneko zenbatekoak finkatu direlako eta udalerrri horietan kapital-transferentziek garrantzi handia dutelako.
- Hiriburuak bigarren postuan daude biztanleko diru-sarreren sailkapenean, zerga-gaitasun handiagoa dutelako eta hiriburuek foru funtsetan tratamendu berezia dutelako.
- EAEko biztanleko batez besteko diru-sarrera 1.637 eurokoa izan da 2019an, 2018koa baino 17 euro gehiago. Batez bestekoaren azpitik daude erdiko hiru populazio mailetak udalerrriak, batez ere 20.000 biztanletik gorakoak, hiriburuak alde batera utzita (1.423 €/ bizt). Talde horretan biztanleko zerga-sarrerarik txikienak daude.
- Hiriburuen batezbestekoak hauek dira: 1.719 €/bizt. Vitoria-Gasteizen, 2.453 €/bizt. Donostian, eta 1.830 €/bizt. Bilbon.

2.8 Grafikoa: Biztanleko diru-sarrerak (€)



2.6 Koadroa: Biztanleko eta populazio-mailen arabeko presio fiskala² (€/bizt.)

POPULAZIO-MAILA	OHZ	TMIZ	HLBGZ	JEZ	EIOZ	GUZTIRA
1. <=1.000	194	71	7	44	48	364
2. 1.001-5.000	181	72	19	73	39	385
3. 5.001-20.000	171	69	17	45	29	332
4. >20.000 (Hiriburuak izan ezik)	173	57	17	38	28	312
5. Hiriburuak	180	59	49	53	36	377
VITORIA - GASTEIZ	175	64	64	62	36	401
BILBAO	151	54	26	43	29	303
DONOSTIA	241	61	71	60	50	483
EAE	176	62	28	48	32	347

² Presio fiskala: zuzeneko eta zeharkako zergen batuketara (tasak ez dira sartu, kontabilizaziorako irizpideak ezberdinak izaten direlako).

Udal-zergak kontuan hartuta, hau ikusten da:

- *Per capita* presio fiskal orokorrak % 1,9 egin du gora 2018. urtearekin alderatuta, biztanleko 347 euroko batezbestekora arte. OHZri dagokion ratioa (176 €/bizt.) nabarmentzen da gainerakoan gainera, eta ikusten da hiriburuak eta bi populazio maila txikienetan dauden udalerriak direla zerga honetan presio fiskal altuena dutenak.
- Aurreko urtearekin alderatuta, biztanleko diru-sarrerak murrizten dituen tokiko zerga bakarra TMIZa da. Gainerakoak gora egin dute eta, nabarmentzekoa da HLBGZ-k (%9,0) eta EOIZ-k (%11,6) izan duten gorakada. Azken zerga hori 2007an lortutako 57 €/bizt.-ko maximotik urrun dago, bere kargapean dauden jardueretan izandako beherakada dela-eta.
- Biztanle bakoitzeko presio fiskal txikiena hiriburuak ez diren 20.000 biztanletik gorako udalerriei dagokie, eta altuena, 1.001-5.000 biztanle tarteko populazio-mailakoei.
- Hiriburuen artean, Bilboko datua nabarmentzen da (303 €/bizt), biztanleko presio fiskala Gasteizkoa (401 €/bizt.) eta Donostiakoa (483 €/bizt.) baino askoz txikiagoa baita.

2.7 Koadroa: Zerga-bilketaren eraginkortasuna (%)

POPULAZIO-MAILA	OHZ	TMIZ	HLBGZ	JEZ	EIOZ	GUZTIRA
1. <=1000	97,7	94,3	83,0	96,2	91,4	95,7
2. 1.001-5.000	96,7	91,1	79,1	95,0	83,9	93,1
3. 5.001-20.000	95,5	92,3	72,7	87,2	78,6	91,0
4. >20.000 (Hirib. izan ezik)	95,1	92,4	82,0	86,7	84,1	91,9
5. Hiriburuak	96,1	92,3	78,1	55,4	77,2	85,6
VITORIA - GASTEIZ	94,0	94,6	77,0	20,3	81,1	78,8
BILBAO	96,8	89,6	88,5	69,1	75,8	88,8
DONOSTIA	97,4	93,7	72,2	86,7	74,8	89,5
EAE	95,7	92,3	78,1	75,8	80,3	89,5

Bilketaren eraginkortasunari erreparatuz gero (diru-bilketa likidoa / aitorituriko eskubide garbiak), honako hauek nabarmendu behar dira:

- Eraginkortasun globala 2019an mantendu da, eta % 89,5ean jarraitzen du. Populazio-mailen arabera, diru-bilketaren eraginkortasuna hiriburuen % 85,6 eta 1.000 biztanletik beherako udalerrien % 95,7 artekoa da.

- Emaitarik onena OHZri dagokio,% 95,7, baina balio hori 2 puntu handiagoa da biztanle gutxien dituzten udalerrien populazio-mailan.
- Aurreko urtearekin alderatuta, jaitsi egin dira OHZren eta TMIZren bilketa-eraginkortasunaren adierazleak, gainerako zergetan hobetuz.
- Hiriburuen artean, daturik onena Donostian izan da (% 89,5), Vitoria-Gasteizen (% 78,8) baino askoz handiagoa; datu hori JEZren diru-bilketaren eraginkortasun txikiak markatu du³.

2.8 Koadroa: Presio fiskal⁴ handiena duten udalerriak (€/bizt.)

	POP.-MAILA	LH	OHZ	TMIZ	HLBGZ	JEZ	EIOZ	GUZTIRA
ZIERBENA	2	BIZKAIA	729	70	-	1.806	180	2.784
ZAMUDIO	2	BIZKAIA	388	118	52	702	138	1.397
ADUNA	1	GIPUZKOA	509	157	21	173	428	1.288
KUARTANGO	1	ARABA	937	61	-	98	46	1.142
SAMANIEGO	1	ARABA	439	60	-	45	415	959
LOIU	2	BIZKAIA	340	124	15	431	26	936
LANTARÓN	1	ARABA	361	62	-	318	150	892
DONEMILIAGA	1	ARABA	428	68	-	288	51	835
LEGUTIO	2	ARABA	421	61	114	151	37	783
OLABERRIA	1	GIPUZKOA	368	158	29	196	29	781
EAE			176	62	28	48	32	347

Azkenik, presio fiskal handiena duten udalerrien rankingari dagokionez:

- Zerrendako buru diren udalerriek populazio txikia dute. Udalerri horiek rankingean sartzearen arrazoia da haietan azpiegitura garrantzitsuak (portua, teknologia parkea) eta/edo enpresa handiak daudela.
- Hala, Zierbena lehenengo lekuan dago, bertan Bilboko portua eta Petronor, Bahía de Bizkaia Electricidad edo Bahía de Bizkaia Gas bezalako enpresa handiak daudelako.
- Deigarria da Kuartangoko biztanleko OHZ altua. Izan ere, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergak hiri- eta landa-ondasun higiezinak zergapetzen ditu, baita ezaugarri bereziak dituzten ondasunak ere. Horien artean parke eolikoak daude, eta Kuartangon Badaiako parke eolika dago.

³ Azterketan diru-sarrera eta gastu arruntak bakarrik aztertzen dira, hondarrak kontuan hartu gabe.

⁴ Presio fiskala: zuzeneko eta zeharkako zergen batuketa.

3. GASTUAK

3.1 ANALISI OROKORRA ETA LURRALDEKAKOA

Udal-sektore publikoko gastu kontsolidatuen bilakaerari eta ezaugarriei dagokienez, honako hauek nabarmendu behar dira:

- 2019an egindako gastu bateratuaren zenbatekoa 3.761 milioi eurokoa izan da, 2018an baino % 5,8 gehiago. Kopuru hori Euskal Autonomia Erkidegoko urteko BPGd-aren % 4,7 da.
- Taldeka, hazkunderik handiena udalerrietan eta udal-sozietate publikoetan izan da. Mankomunitateek, partzuergoek eta koadrilek osatutako taldearen gastuak ere gora egin du. Gainerako taldeetan, hau da, kontzejuetan, erakunde autonomo administratiboetan eta udalaz gaindiko enpresetan, gastuak murriztu egin dira.


3.1 Koadroa: Udal-arlo publikoaren gastu bateratuen bilakaera. EAE guztira

EAE	2018		2019		Δ %
	Mila €	%	Mila €	%	
Udalak eta beren mendeko entitateak					
Tokiko entitate txikiak	26.605	0,7	23.511	0,6	-11,6
Adm. erakunde autonomoak	206.365	5,8	199.886	5,3	-3,1
Sozietate publikoak	312.113	8,8	333.740	8,9	6,9
Udalerriak	2.591.549	72,9	2.779.598	73,9	7,3
GUZTIZKO PARTZIALA	3.136.632	88,2	3.336.735	88,7	6,4
Udalez gaindiko entitateak					
Mankom., partzuergoak, kuadrillak...	289.017	8,1	301.346	8,0	4,3
Udalez gaindiko enpresak	131.245	3,7	123.389	3,3	-6,0
GUZTIZKO PARTZIALA	420.262	11,8	424.735	11,3	1,1
GASTU BATERATUAK, GUZTIRA	3.556.894		3.761.470		5,8


- Sailkapen ekonomikoaren arabera, funtzionamendu-gastuak % 76,1 dira. Talde horren barruan, langile-gastuak % 34,5era iristen dira, eta ondasun arrunten eta zerbitzuen gastua, berriz, % 41,6ra.
- Inbertsioaren pisua 1,8 puntu handitu da eta bateratutako guztizkoaren % 14,3 izan da.
- Lurraldeka, finantza-kargak pisu handiago du Araban (% 4,2) eta Gipuzkoan (% 4,5), Bizkaian baino (% 1,4). Arabako langile-gastuak

(% 39,6) beste bi lurraldeetakoak baino handiagoak dira, ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuen kaltetan.

3.1 Grafikoa: Gastuen sailkapen ekonomikoa, orokorra eta lurraldeka: Egitura



3.2 Grafikoa: Gastuen lurralde banaketa. 2019 (%)



- 2018ko datuekin alderatuta, gastuak hiru kapitulutan jaitsi dira: kapital-transferentziak (-% 8,8), finantza-gastuak (-% 12,7) eta finantza-pasiboak (-% 1,2).

- Funtzionamendu-gastuak % 3,6 hazi dira, bi osagaien igoeraren ondorioz: % 5,6 pertsonal-gastuak eta % 2,1 ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak.
- Inbertsio errealak % 20,6 hazi ziren, eta, horren ondorioz, inbertsio osoaren gastua handitu egin da (% 19,3).
- Era berean, inbertsio-gastuak hiru lurraldeetan gehitu dira: % 5,3 Araban, % 15,5 Bizkaian eta % 29,6 Gipuzkoan.
- Finantza-kargak Bizkaian bakarrik egin du gora (% 19,2), eta jaitsi egin da Araban eta Gipuzkoan (-% 7,6 eta -% 8,3, hurrenez hurren). Hala, 2019an, finantza-karga gastu guztien % 1,4 izan da Bizkaian, % 4,2 Araban eta % 4,5 Gipuzkoan.
- Udal-sektoreko gastuak hiru lurraldeetan gehitu dira: Araban % 4,7, Bizkaian % 5,6 eta Gipuzkoan % 6,5.

3.2 Koadroa: Gastuen sailkapen ekonomikoa lurraldeka 2019an eta aurreko urtearekiko bilakaera.

	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		EAE	
	Mila €	Δ % 19/18	Mila €	Δ % 19/18	Mila €	Δ % 19/18	Mila €	Δ % 19/18
Pertsonal gastuak	222.666	6,7	634.876	5,9	441.742	4,7	1.299.284	5,6
Gastuak ondasun arrunt eta zerb.	213.702	2,3	786.797	1,7	562.228	2,5	1.562.727	2,1
Funtzionamendu-gastuak	436.369	4,5	1.421.674	3,5	1.003.969	3,4	2.862.012	3,6
Inbertsio errealak	68.227	5,8	259.597	18,6	210.110	29,1	537.934	20,6
Kapital transferentziak	834	-24,4	4.879	-51,6	13.361	37,4	19.074	-8,8
Inbertsio-gastuak	69.061	5,3	264.476	15,5	223.471	29,6	557.008	19,3
Transferentzia arruntak	29.731	5,6	121.388	10,5	65.964	7,1	217.084	8,8
Finantza aktiboak	3.343	1669,6	11.105	-17,6	1.075	-41,2	15.523	0,2
Bestelako gastuak	33.074	16,7	132.494	7,5	67.040	5,7	232.607	8,2
FIN. KARGARIK GABEKO GASTUAK	538.504	5,3	1.818.643	5,4	1.294.480	7,3	3.651.627	6,0
Finantza gastuak	1.295	-30,8	1.448	-20,3	12.007	-9,1	14.750	-12,7
Finantza pasiboak	22.021	-5,7	23.870	22,9	49.202	-8,0	95.093	-1,2
Finantza-karga GASTUAK, GUZTIRA	23.317	-7,6	25.317	19,2	61.209	-8,3	109.843	-3,0
GASTUAK, GUZTIRA	561.820	4,7	1.843.961	5,6	1.355.689	6,5	3.761.470	5,8

- Udal sektore publikoak 25.587 pertsona batu ditu 2019an, EAEko biztanleria okupatuaren urteko batezbestekoaren % 2,7. 2018an langileen zenbatekoa 25.238ekoa izan zen.

3.3 Koadroa: Udal-arlo publikoaren biztanleria okupatua

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE
Udal-arlo publikoko langileak (1)	4.801	11.724	9.062	25.587
Urteko batez besteko langileak, lurralde historikoka (2)	144.600	487.700	318.900	951.200
EHUNEKOA (1) / (2)	% 3,3	% 2,4	% 2,8	% 2,7

Azkenik, udal-sektore publikoko biztanle bakoitzeko gastuen azterketak agerian uzten du honako hau:

- Biztanleko gastuak, guztira, 84 € igo dira, eta batezbestekoa 1.710 eurotan dago. Horietatik, 1.301 funtzionamendu-gastuei dagozkie. Igoera hiru lurraldeetan izan da: 65 euro Araban, 76 Bizkaian eta 106 Gipuzkoan. Gipuzkoa da, oraindik ere, batez besteko altuena duen lurraldea (1.882 €/bizt.), Arabaren (1.701 €/bizt.) eta Bizkaiaren (1.605 €/bizt.) aurretik.
- Logikoa denez, lurraldeetan gertatu diren aldaketen ondorioz, lurraldeen arteko tartea hazi egin da aurreko urtearekin alderatuta, eta 2019an 277 €-tan geratu da; 2018an, aldiz, 247 €-tan geratu zen.
- Gipuzkoak du biztanle bakoitzeko inbertsio-gasturik handiena (310 €/ bizt.), ondoren Bizkaiak (230 €/ bizt.) eta Arabak (209 €/ bizt.). Funtzionamendu-gastuei dagokienez, ratio txikiena Bizkaiari dagokio (1.237 €/ bizt.) eta handiena Gipuzkoari (1.394 €/ bizt.). Finantza-kargak behera egin du Araban eta Gipuzkoan, eta gora Bizkaian.

3.4 Koadroa: Biztanleko gastuak (euro)


	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE
Funtzionamendu-gastuak	1.321	1.237	1.394	1.301
Inbertsio-gastuak	209	230	310	253
Bestelako gastuak	100	115	93	106
FIN. KARGARIK GABEKO GASTUAK	1.631	1.583	1.797	1.660
Finantza-karga	71	22	85	50
GASTUAK, GUZTIRA	1.701	1.605	1.882	1.710

3.2 POPULAZIO-MAILAKA

Populazio-mailak kontuan hartuta, EAEko udal-sektorearen gastu kontsolidatuaren egiturak honako hau erakusten du:

- Funtzionamendu-gastuek protagonismo handiagoa hartzen dute biztanleriak gora egin ahala, eta inbertsioek garrantzi erlatibo handiagoa, herri txikiagoetan.
- Funtzionamendu-gastuak apur bat murriztu dira, eta batez beste % 73,9an geratu dira EAEn. 2019an, inbertsioa, bi puntuko igoerarekin, % 14,2ra iritsi da.

3.3 Grafikoa: Gastuen sailkapen ekonomikoa populazio-mailaka: Egitura



- Guztizko gastuak bost populazio-mailetan igo dira, baina hiriburuen mailan indar handiagoz. Finantza-karga alde batera utzita, gastuek ere gora egin dute bost populazio-mailetan, 2018arekin alderatuta, eta, guztizkoan bezala, hiriburuen mailan izandako hazkundera nabarmentzen da (% 9,3).
- Langileen gastuak eta ondasun eta zerbitzuak erosteko gastuak gehitu egin dira, eta lehenengoen hazkundera handiagoa izan da.
- Finantza-karga % 1,6 jaitsi da globalean. Populazio-maila bakoitzeko aldakuntzen bolumena ez da oso esanguratsua. Osagaiari dagokienez,

finantza-gastuak % 21,8 jaitسي dira, eta finantza-pasiboetako gastuak, berriz, egonkor mantendu dira.

- Inbertsio-gastuek, batez beste, % 21,1 egin dute gora. 2. populazio-maila izan ezik (% 6,8 jaitسي da), inbertsioa maila guztietan hazi da, batez ere hiriburuetan (% 34,4). Osagaien arabera, inbertsio errealek egin dute gora (batez beste % 23,4). Kapital-transferentziek, aldiz, % 15,1eko murrizketa izan dute.

3.5 Koadroa: Gastuen sailkapen ekonomikoa: Bilakaera

	<=1.000		1.001-5.000		5.001-20.000		>20.000 hirib. ezik		Hiriburuak	
	mila €	Δ %	mila €	Δ %	mila €	Δ %	mila €	Δ %	mila €	Δ %
Pertsonal gastuak	19.779	6,0	66.726	5,0	248.516	3,2	331.173	3,6	538.504	8,2
Gast. ondasun arrunt eta zerb.	25.753	3,7	105.663	5,2	299.853	0,0	351.025	1,9	557.425	3,6
Funtzionamendu-gastuak	45.532	4,7	172.388	5,1	548.368	1,4	682.198	2,7	1.095.929	5,8
Inbertsio errealek	27.434	5,9	51.961	-4,4	124.387	28,4	113.042	22,4	172.732	35,6
Kapital transferentziak	141	28,5	776	-65,9	2.800	-40,5	2.025	-62,4	15.749	22,7
Inbertsio-gastuak	27.575	6,0	52.737	-6,8	127.187	25,2	115.067	17,7	188.481	34,4
Transferentzia arruntak	7.313	3,0	27.823	5,5	78.503	4,9	60.301	5,7	120.484	11,2
Finantza aktiboak	10	-74,7	204	-59,5	665	-57,5	706	-26,4	522	-55,8
Bestelako gastuak	7.323	2,6	28.027	4,3	79.168	3,6	61.007	5,1	121.007	10,4
FIN. KARGARIK GABEKO GAST.	80.430	5,0	253.152	2,3	754.723	5,0	858.273	4,7	1.405.417	9,3
Finantza gastuak	78	-28,6	380	13,0	1.271	-30,0	931	-27,4	2.589	-18,4
Finantza pasiboak	1.584	14,0	6.126	-16,8	17.254	-2,8	20.723	12,2	39.634	-1,8
Finantza-karga	1.661	10,9	6.506	-15,5	18.525	-5,3	21.654	9,6	42.223	-3,0
GASTUAK, GUZTIRA	82.092	5,1	259.658	1,7	773.248	4,7	879.927	4,8	1.447.640	8,9

Populazio-mailaren araberako biztanleko gastuei dagokienez, honako hau ikus daiteke:


- Diru-sarreretan bezala, 4. populazio-mailak biztanleko zenbateko txikiena du (1.365 €/bizt.), hiriburuetako (1.863 €/bizt.) eta udalerrri txikienetako (1.854 €/bizt.) batez besteko balioen oso azpitik.
- Gastuen multzo nagusiari dagokionez, hau da, funtzionamendu-gastuak, 2. populazio-mailak txikienak ditu, eta hiriburuak, handienak.

- Hiriburuei dagozkien zenbatekoak honako hauek izan dira:

- Vitoria-Gasteiz: 1.680 €/bizt.
- Bilbo: 1.745 €/bizt.
- Donostia: 2.337 €/bizt.

Hiriburuetakoko biztanle bakoitzeko gastuek gora egin dute hiru hiriburuetan: Gasteizen (90 €/bizt), Bilbon (93 €/bizt.), eta Donostian (300 €/bizt. horietatik 110 udalaren inbertsio errealei dagozkie). Horrela, Gipuzkoako hiriburuak oraindik hiru hirien artean ratio altuena du.

3.4 Grafikoa: Gastuak biztanleko (€)



4. ZORPETZEA

Zorpetze-indizea, finantza-karga ordaintzeko erabiltzen den diru-sarrerara arrunten ehunekoa azaltzen duena, berriro jaitsi da 2019an eta % 3,0an geratu da, 2018an baino 0,2 puntu gutxiago. Indizeak gora egin du Bizkaian (0,2 puntu), eta behera Araban eta Gipuzkoan (-0,5 puntu). Bizkaiko indizea (% 1,4) beste lurraldeetako baino nabarmen txikiagoa da.

4.1 Koadroa: Zorpetze-indizea orokorra eta lurraldeka (mila €)

	INTERESAK 3. KAP. GASTUAK	AMORTIZAZIOA 9. KAP. GASTUAK	FINANTZA- KARGA (1)	DIRU-SARRERA ARRUNTAK (2)	ZORPETZE- INDIZEA (1)/(2)
Araba	1.295	22.021	23.317	533.755	% 4,4
Bizkaia	1.448	23.870	25.317	1.865.469	% 1,4
Gipuzkoa	12.007	49.202	61.209	1.294.132	% 4,7
Guztira	14.750	95.093	109.843	3.693.357	% 3,0

Zorpetze-indizea 0,1 puntu igo da 1. eta 4. populazio-mailetan (biztanle gutxien dituen eta 20.000 biztanletik gora dituen hiriburuak alde batera utzita). Beste hiru populazio-mailetan indizeak behera egiten du. Hiriburuek dute baliorik altuena, % 3,0.

4.2 Koadroa: Zorpetze-indizea populazio-mailaka (mila €)

	INTERESAK 3. KAP. GASTUAK	AMORTIZAZIOA 9. KAP. GASTUAK	FINANTZA- KARGA (1)	DIRU-SARRERA ARRUNTAK (2)	ZORPETZE- INDIZEA (1)/(2)
1.Pop.-maila	78	1.584	1.661	72.122	% 2,3
2.Pop.-maila	380	6.126	6.506	255.492	% 2,5
3.Pop.-maila	1.271	17.254	18.525	769.873	% 2,4
4.Pop.-maila	931	20.723	21.654	880.767	% 2,5
5.Pop.-maila	2.589	39.634	42.223	1.396.131	% 3,0
Guztira	5.248	85.322	90.569	3.374.386	% 2,7

Guztizko zor biziari dagokionez (553 M€), 2018ko datuarekin alderatuta, % 5,8 jaitsi da. Gipuzkoak guztizkoaren % 58 biltzen du, eta gainerakoa Arabaren eta Bizkaiaren artean banatzen da nahiko modu orekatuan. Hiru lurraldeek zorraren pisua, BPGd-aren ehunekoan, murriztu dute, nahiz eta ratio txikiena Bizkaiari dagokion (% 0,3), Arabari (% 0,9) eta Gipuzkoari (% 1,2) dagozkienak baino baxuagoa.

Zor biziaren 553 milioi horietatik, 51 milioi (% 9,2) udalez gaindiko entitateei dagozkie eta, horietatik, 49 milioi Gipuzkoakoak dira.

4.3 Koadroa: Zor bizi formalizatua orokorra eta lurraldeka

	2019 Mila euro	Lurralde- banaketa %	BPGd-aren gaineko %	Δ % 2019/2018	Biztanleko zor bizia €
Araba	114.561	% 20,7	% 0,9	-% 7,6	347
Bizkaia	116.924	% 21,1	% 0,3	-% 13,2	102
Gipuzkoa	321.538	% 58,1	% 1,2	-% 2,1	446
Guztira	553.023	% 100,0	% 0,7	-% 5,8	251

Biztanle bakoitzeko zorraren zenbatekoa 2018an baino txikiagoa da populazio-maila guztietan. Horien artean, zenbateko handiena hiriburuei dagokie (344 €/bizt.). Gipuzkoak balio altuenak ditu populazio-maila guztietan eta, bereziki, Donostia nabarmentzen da, 889 €/biztanleko zorra duena, 18 euroko igoyerarekin 2018arekin alderatuta. Bilbok, berriz, zor bizirik gabe jarraitzen du.

4.4 Koadroa: Biztanleko zor bizi formalizatua, lurraldeka eta populazio-mailaka (€)

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE
1. Populazio-maila	170	63	182	127
2. Populazio-maila	114	141	252	166
3. Populazio-maila	89	136	195	163
4. Populazio-maila		152	209	169
5. Populazio-maila	424	0	889	344
Guztira	347	100	378	228

5. EKONOMIA ETA FINANTZA EGOERA

5.1 ANALISI OROKORRA ETA LURRALDEKAKOA

EAEko udal-sektore publikoaren ekonomia eta finantza egoerari dagokionez, honako hau adierazi behar da:

- Finantzaketa-gaitasun globalak 142,9 milioi euroko murrizketa izan du 2018. urtearekin alderatuta, aurrezki gordinaren % 3,4ko eta kapital-eraketaren % 76,8ko igoeren ondorioz. Termino erlatiboetan, BPGd-ren % 0,28 da.
- 2019an, hiru lurraldeek dute finantzaketa-gaitasun positiboa, eta urteko zorpetze garbia dute.
- Aurrekontu-superabita murriztu egin da hiru lurraldeetan, baina neurri txikiagoan Bizkaian, lurralde horretan konpentsatzen baita kapital-eraketaren hazkundera aurrezki gordinaren gehikuntzarekin, nahiz eta zorraren amortizazio garbiaren hazkundera eragin negatiboa izan aldagaian.

5.1 Koadroa: Ekonomia eta finantza egoera lurraldeka (mila €)

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE
Diru-sarrera arruntak	533.755	1.865.469	1.294.132	3.693.357
Gastu arruntak	467.395	1.544.510	1.081.940	3.093.845
Aurrezki gordina	66.359	320.960	212.192	599.512
Kapital diru-sarrerak	33.068	62.033	87.591	182.692
Kapital gastuak	69.061	264.476	223.471	557.008
Kapital eraketa	35.993	202.443	135.881	374.316
Finantza Beharra (-) / Gaitasuna (+)	30.367	118.517	76.312	225.195
8. Kapituluak. Diru-sarrerak	63	2.251	1.807	4.121
8. Kapituluak. Gastuak	3.343	11.105	1.075	15.523
Zorpetze garbia. Beharra (-) / Gaitasuna (+)	27.088	109.662	77.043	213.793
9. Kapituluak. Diru-sarrerak	13.777	7.227	43.734	64.738
9. Kapituluak-gastuak	22.021	23.870	49.202	95.093
Urteko zorpetze garbia	-8.244	-16.643	-5.469	-30.355
Aurrekontuko Defizita (-) / Superabita (+)	18.843	93.019	71.575	183.437

5.2 POPULAZIO-MAILAKA

- Aurreko urtean bezala, populazio-maila guztiek izan dute finantza gaitasuna, baina murrizketa handia izan da EAE osoan: jaitziera orokorra da, biztanle gutxieneko populazio-mailan izan ezik.
- Egindako amortizazioek mailegu berrien zenbatekoak gainditu dituzte populazio-maila guztietan, hirugarrenean izan ezik.
- 2019an, nahiz eta populazio-maila guztiek aurrekontu-superabita izan, haren bolumena 2018ko zifraren erdia pasatxo da, kapital-eraketaren gorakada handiaren ondorioz.

5.2 Koadroa: Ekonomia eta finantza egoera populazio-mailaka (mila €)

	POPULAZIO-MAILAK					GUZTIRA
	1.	2.	3.	4.	5.	
Diru-sarrera arruntak	72.122	255.492	769.873	880.767	1.396.131	3.374.386
Gastu arruntak	52.923	200.591	628.142	743.431	1.219.002	2.844.088
Aurrezki gordina	19.199	54.901	141.731	137.336	177.129	530.297
Kapital diru-sarrerak	16.206	18.288	22.647	29.438	75.988	162.566
Kapital gastuak	27.575	52.737	127.187	115.067	188.481	511.047
Kapital eraketa	11.370	34.449	104.540	85.629	112.493	348.481
Finantza Beharra (-) / Gaitasuna (+)	7.829	20.452	37.191	51.707	64.636	181.816
8. Kapituluua. Diru-sarrerak	14	179	955	1.235	169	2.553
8. Kapituluua. Gastuak	10	204	665	706	522	2.108
Zorpetze garbia. Beharra (-)/Gaitasuna (+)	7.834	20.427	37.481	52.237	64.282	182.261
9. Kapituluua. Diru-sarrerak	399	883	19.831	5.886	35.455	62.455
9. Kapituluua-gastuak	1.584	6.126	17.254	20.723	39.634	85.322
Urteko zorpetze garbia	-1.184	-5.243	2.577	-14.837	-4.179	-22.867
Aurrekontuko Defizita (-)/Superabita (+)	6.649	15.184	40.057	37.399	60.104	159.394

6. ZERGA ITUNDUETAN UDAL PARTE-HARTZEA

Aipatu den bezala, udal-arlo publikoaren diru-sarrereren iturri nagusia foru-aldundiek egindako transferentzia arruntak dira: hain zuzen ere, 2019. urtean udal entitateen diru-sarrera guztien % 48 izan dira, eta udalez gaindiko erakundeak sartzen badira, % 44.

Transferentzia horietatik, % 96 Ekonomia Itunaren kudeaketatik EAerako bideratzen diren zerga orokorren (PFEZ, sozietateen gaineko zerga, BEZ...) etekinetako partaidetzari dagokio. Batzar Nagusiek onetsitako udal finantzaketari buruzko foru-arauek arautzen dituzte bai partaidetza hori, bai udal-entitateen artean banatzeko irizpideak, lurralde historiko bakoitzean.

Arau horien arabera, ekitaldi bakoitzeko behin-behineko partaidetza diru-sarrereren aurrekontu-aurreikuspenak oinarri hartuta kalkulatzen da, eta ekitaldia itxi eta benetako bilketaren datuak jakin ondoren kitatzen da.

Horrela, 2019. ekitaldiko udal partaidetza zerga itunduetan, foru aldundien aurrekontu eta likidazioen arabera, honako hau izan da:

6.1 Koadroa: Zerga itunduetan udal parte-hartzea

	Behin-behinekoa Mila €	Likidazioa Mila €	Likidazioa biztanleko €/bizt.
ARABA	255.046	242.861	735
BIZKAIA	869.136	895.123	779
GIPUZKOA	517.894	529.508	735
GUZTIRA	1.642.076	1.667.492	758

2019an, udalek zerga itunduetan duten partaidetzaren likidazioak gainditu egin du aurrekontuan jasotakoa Bizkaian (% 3) eta Gipuzkoan (% 2,2). Araban, likidazioa aurrekontua baino % 4,8 txikiagoa izan da, Obra eta Zerbitzuen Foru Plana ez baita gauzatu.

Baliabideen Banaketarako Metodologiaren martxoaren 23ko 2/2007 Legea indarrean egon den urteetan, toki-erakundeek itundutako zergetan izan duten behin betiko partaidetza honako koadroan ikus daiteke.

6.2 Koadroa: Zerga itunduetan udal parte-hartzearen bilakaera (mila €)

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE
2007	206.239	830.078	424.057	1.460.375
2008	219.394	750.376	404.433	1.374.202
2009	171.938	672.382	342.982	1.187.302
2010	200.822	750.865	392.492	1.344.179
2011	176.509	733.169	355.576	1.265.254
2012	234.309	759.403	385.314	1.379.026
2013	169.655	733.188	387.879	1.290.723
2014	185.581	752.643	418.901	1.357.125
2015	211.446	736.348	437.002	1.384.795
2016	204.704	762.250	449.336	1.416.290
2017	222.967	807.248	468.313	1.498.528
2018	243.333	869.493	514.574	1.627.400
2019	242.861	895.123	529.508	1.667.492

Bilakaera hori EAeko diru-bilketak garai honetan zehar izandakoarekin bat dator, eta krisi ekonomikoaren lehen etaparekin bat etorri, 2009. eta 2011. ekitaldiek izan zuten portaera okerrena. Bestalde, aipatu beharra dago 2012. ekitaldiko emaitza ezohikoa izan zela, sarreretan estatu-laguntzak berreskuratu zirelako.

Populazio-mailaka sailkatuta, foru-aldundiek baldintzarik gabeko udal-finantzaketaren likidazioari buruz emandako informaziotik, honako datu hauek ondorioztatu dira:

6.3 Koadroa: Zerga itunduetako partaidetza biztanleko eta populazio-mailaka (€)

	ARABA*	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE
1. <=1000	531	1.060	878	859
2. 1.001-5.000	565	743	705	697
3. 5.001-20.000	636	678	706	689
4. >20.000 (Hiriburuak izan ezik)		662	721	680
5. Hiriburuak	738	978	789	857
GUZTIRA	701	774	734	750

*Udalerrriak eta kontzejuak bakarrik

Populazio-mailaren arabera aurkeztu diren datuak toki-erakundeek 2019an jasotako zenbatekoak dira. Araban, batezbestekoa 701 €/bizt. izan da, baina kontuan hartu behar da honakoak ez direla taulan sartu:

- Obra eta Zerbitzuen Foru Plana (OZFP) (4,0 M€).
- Kuadrillen partaidetza (3,8 M€).
- Auzo Harremanak Sustatzeko Ekimenetarako eta Arabako Toki Erakundeetan Obra Txikiak Gauzatzeko laguntza programak (3,6 M€).

Kontzeptu horiek guztiak kontuan hartuta, Arabako biztanleko partaidetza 735 eurokoa izango litzateke.

Bizkaian (1.060 €/bizt.) eta Gipuzkoan (878 €/bizt.), 1. populazio-mailaren finantzaketa handiagoa da: alde batetik, Bizkaian, udalerriek finantzaketan zenbateko finkoa dute eta ondorioz, udalerrri txikiak abantaila lortzen dute eta, beste aldetik, Gipuzkoan, Udal Finantzaketarako Foru Funtsaren % 1,2 gordetzen da 1.100 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrietarako, eta ehuneko hori udalerrriaren populazio-tartearen arabera banatzen da zenbateko finkoetan. Zenbateko hori Bizkaian 81.137 €-koa da, eta Gipuzkoan 84.142 € (200 biztanle baino txikiagoak diren udalerrietarako) eta 36.061 € (601 eta 1.000 biztanleen arteko udalerrietarako) artean dago.

Arabian, udal bakoitzerako esleipen finkoa 21.035 €-koa da eta, gainera, biztanle gehien dituzten udalerrriek partaidetza osagarriaren banaketan onura lortzen dute, partaidetza horren hainbat portzentaje gordetzen baitira 1.000, 5.000, 15.000 edo 50.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrri guztientzat.

